

Akta/Kronika.

Lezon Energia Komunitatea Eratzeko Prozesua

2. saio irekia.

Euskara Kultura Aretoa [2024/12/02]



1.- Deskribapena

1.1.- Oinarrizko informazioa.

- **Data:** Abenduak 02, astelehena.
- **Saioaren iraupena:** 1,5 ordu.
- **Ordutegia:** 18:30etatik 20:00etara.
- **Lekua:** Euskara eta kultura aretoan
- **Antolatzaileak:** Iratzerri eta Lezoko udala.
- **Dinamizazio taldea:**
 - Oier Etxebarria Gutierrez (Goiener)

1.3.- Parte-hartzaileak: Lezoko bizilagunak norbanako bezala eta herri eragileak

- **Guztira:** 23 pertsona.

- **Genero/sexu banaketa:**

- Emakumeak: 5

- Gizonak: 18

Adinaren arabera:

< 19 urte: 0

20 – 29 urte: 1

30 – 39 urte: 1

40 – 49 urte: 2

50 – 59 urte: 9

60 – 69 urte: 10

70 – 79 urte: 0

2.- Saioaren helburuak:

- **Ezagutu:** energia berriztagarrien inguruko proiektu kolektiboen inguruko informazioa ekartzea. Taldea energia gaien inguruan ahaldundzea. Beste EBK batzuk egiten ari diren proiektuak ezagutzea.
- **Arakatu:** parte hartzaileekin batera Lezoko EBKak garatu ditzakeen proiektuen inguruko elkarriketak abiatu, EBKren zentzua autokontsumo elektrikoaz haratago zabaldu. Taldearen kohesioa lantzen jarraitu.
- **Aukeratu:** Taldearekin batera Lezorako interesgarrienak izan daitezkeen energia-proiektuak aukeratzeko.
- **Hurrengo pausoak** parte hartzaileekin batera zehaztu.

2.- Edukiak

2.1.- Aurkezpen instituzionala:

Jon zinegotziak bilerari hasiera eman dio.

2.2.- Iratzerriren azalpenak

Ekaitzek bileraren nondik norakoak azaldu ditu-

2.3.- Parte hartzaileen aurkezpene eta etortzeko arrazoia:

Orokorrean gaiarekin interesatuta eta informatzera etorri direla esan dute eta batzuk gogotsu daudela agertu dute.

2.4.- Formazioa: Energia Komunitateek egin ditzaketen proiektuen eta energia berriztagarrien inguruko azalpena.

Energia berriztagarrien teknologia desberdinak eta, hauetan oinarrituta, beste EBKek garatutako proiektu desberdinen ereduak aurkeztu dira. Bereziki beroa eta argindarraren inguruko proiektuak:

- Beroa sortzeko:
 - Biomasa eta biogasa.
 - Eguzki-energia termikoa.
 - District-heating edo auzo mailako bero-sareak.
- Argindarra sortzeko:
 - Eguzki-energia fotovoltaikoa. Neurri desberdinetako proiektuak.
 - Energia hidraulikoa, mini-hidraulikoa eta mikro-hidraulikoa.
 - Energia eolikoa. Tamaina ertaineko proiektu kolektiboak eta mini-eolikoa norbanakoentzat.

- Kontsumo murrizketa eta efizientzia:
 - Aholkularitza bulegoa energia alorrean
 - Birgaitze proiektuak
 - Mugikortasuna
 - Sentsibilizazio eta kontzientziazioa

3.- Galde erantzunak

Aeroterminiari buruz galdetu da, baita ere Goiener sarearen inguruan (Kooperatiba, elkarte eta Nafarkoop)

3.- Talde lana eta bat egitea.




Lau taldetan banatu dira: fotovoltaikoa, eolikoa, biomasa eta efizientzia/sentsibilizazioa. Talde bakoitzak proposamen sorta egin du eta taldean elkarbanatu:

Proposamenen zerrenda:

- Fotovoltaikoa
 - Instalazioen bideragarritasun azterketa bat egin beharra dago
 - Eraikuntza publikoak baliatzeko aukera aipatu da (Igerileku, Kiroldegia, Udaletxea...)
 - Teilatuen egokitasunean zalantzak. Pisuak jasateko gai izango al dira?
 - Udaletxeak ba aldu betebeharrak?

- Eolikoa
 - o Plan sektorialak Jaizkibel eremu babestu gisara izendatua dagoenez instalazio eolikoak ezartzetik salbuetsita dago.
 - o Honelako instalazio handiak ezartzeko herri mailatik baino eskualde mailako proiektuak izan beharko luketela aipatu da. Proiektu handietan multinazionalen eta oligopolioaren menpe
 - o Eusko Jaurlaritzari emandako transferentziek euskal kostan instalazio eolikoak instalatzeko eskumena. Zer eragin lezake honelako instalazio batek lurreratzean Jaizkibelen ala Lezon (Banaketa sareak, komunikazio eta mantentze-lan bideak...)
 - o Kautari itsasoak sakonera handia du distantzia gutxira. Airesorgailu flotagarriak ezarri beharko lirateke (teknologia konplexua)
- Biomasa
 - o Kimaketa sistema Jaizkibelen eta herri lurretan. Ze kopru beharko litzateke? RN2000. Lurren jabetzak norenak dira?
 - o Mendi garbiketa, herriko parkeak. Trasmotxoak?
 - o Basozainarekin kontaktua eta baserri gunea edo auzoa
 - o Biogasa baliatzea: Purinak, araztegien lodoak (lohiak). Loiola eta hondarribiko araztegiak. Ze kopuru minimo beharko litzateke?
- Efizientzia/sentsibilizazioa
 - o Mugikortasun ohiturak aldatu behar dira: Erosketak herrian egitea sustatu. Kirol edo aisialdi jarduerak egokitu (Eskola kirolak Arraitoki parkinean izaten duen eragina jardunaldiak izate direnean)
 - o Kontsumismoaren kontzientzian eragin
 - o Energia garbiena gastatzen ez dena, beharrezkoa dena soilik gastatzea da eraginkorra izatea.
 - o Etxebizitzan birgaitzeen ahokularitza burutu



5.- Hurrengo pausoak

Abenduak 16, astelehen.

18:30etatik 20:00etara.

Tokia zehazteko geratu da. Udaletxeko Pleno Aretoan egiteko aukera begiratzan ari da Energia Teknikaria